

15 GUGGENHEIM  
BILBAO 1997-2012


2012

ERAKUSKETAK





# ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



## FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Ispilua alderantziz: “la Caixa” Fundazioaren eta MACBA Bildumen artea***  
Komisarioa: Álvaro Rodríguez Fominaya  
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa  
Datak: Urtarrilak 31–irailak 2  
Aretoak: Hirugarren solairukoak


### ***1940ko hamarkadaren amaieratik egundainoko mugimendu esanguratsuenak aztertuko ditu***

*Ispilua alderantziz* erakusketan 52 artisten lanak daude, “la Caixa” Fundazioaren eta MACBA museoarenak, alegia, Europako arte garaikide bilduma garrantzitsuenetako birenak, eta lehen aldiz elkarrekin ikusgai jarri dira haien funtsak dagozkien egoitzetatik at. 1940ko hamarkadatik egundainoko lanak daude, tartean, pinturak, eskulturak, argazkiak eta bideoak, eta gaika antolatu dira sei ataletan: “Dau Al Set eta El Paso”; “Funtzioa eta birsorkuntza argazkigintzan: *Landschaft*”; “Funtzioa eta birsorkuntza argazkigintzan: nia eta bestea”; “Performancearen mugak”; “Ispilua alderantziz”; eta “Arintasuna, grabitatea eta beste hainbat ezinezko”.

Gaur egungo artearen bilakaeran eragin handia izan duten artistak, joerak eta mugimenduak aukeratu dira, hala nola, gerraosteko Dau Al Set (1948–54) eta El Paso (1957–60) taldeak eta Vancouver-eko eta Düsseldorf-eko argazkigintza eskolak. Bilduma biek sakonean jorratzen dituzten gaiak laburbiltzen dira, esaterako: Informalismoaren hasiera Espainian —Rafael Canogar, Antonio Saura eta Antoni Tàpies artisten lanen bidez— eta egungo argazkigintzan objektibotasuna lantzeko modu anitzak —Andreas Gursky-ren artelanak direla medio, adibidez—. Era berean, honakoen lanak ere ikusgai jarri dira: Gego, Julian Schnabel, Michelangelo Pistoletto, Sigmar Polke eta Martha Rosler, besteak beste. Hartara, artearen joera horiek agerian jartzeaz gain, erakusketan honetan bildumak non elkartzen diren eta non aldentzen diren ikertzen da, hots, antzekotasunak eta aldeak, eta agerian jartzen dira Espainiako eta nazioarteko arte giroen arteko loturak.

Erakusketaren izenburuaren jatorria Michelangelo Pistolettoren *Ispiluaren arkitektura* (*Architettura dello Specchio*, 1990) artelanean dago —ikusgai dago—. Ispilua, artea biltzeko prozesuaren metafora da: ispilu batek objektu baten eta haren inguruaren arteko lotura berriak ezar baititzake eta irudi bakar batean askotariko osagaiak elkartu.

## ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



### FITXA TEKNIKOA

- Titulua: ***David Hockney: ikuspegi zabalago bat***  
Komisarioak: Edith Devaney eta Marco Livingstone  
Egoitzak: Royal Academy of Arts, Londres; Guggenheim Bilbao Museoa; eta Ludwig Museum, Kolonia  
Datak: Maiatzak 15–irailak 30  
Aretoak: Bigarren solairukoak

### ***Paisaiak liluratuta***



*David Hockney: ikuspegi zabalago bat* Londresko Royal Academy of Arts-ek antolatu du Guggenheim Bilbao Museoarekin eta Koloniako Museum Ludwigekin lankidetzan. David Hockney (Bradford, Erresuma Batua, 1937) egun jardunean dagoen britainiar pintore gailentzat dute, eta erakusketa honetan haren arte-proiektuan paisaiak duen leku esanguratsua aztertuko da; gaurdaino gai horri eskainitako erakusketarik handiena izango da.

Artistaren 50 urteko ibilbideko 200 bat lan egongo dira: hasierako lanak, 1950eko hamarkadakoak eta 1960ko hamarkadaren hasierakoak; argazki-collageak, 1980ko hamarkadakoak; *Arroila Handia* pinturak, 1990eko hamarkadaren amaierakoak; eta, azkenik, orain gutxi egindako Yorkshire-ko pinturak. Azken horietako batzuk erakusketarako berriaz egin ditu.

Horiexek izango dira erakusketaren muina: 2005az geroztik egindako lanak, hots, aberrira, Ingalaterrara, itzuli zenekoak. East Yorkshire-ko kostako herri txiki batera, Bridlington-era, bizitzera joan zen, eta bertan egin zituen aipatutako lanak: paisaien hiru sorta. Lan horiek erakusten digute gaztaroko paisaiari atxikitzen zaiola Hockney; bestalde, erakusketako lan guztiek aditzera ematen digute ikusizko mundua aztertzeke duen modu sofistikatu eta artistaren oharmen aparta. Izan ere, askotako teknikez baliatuta, besteak beste, urteko sasoiak, naturaren zikloak eta argi-jokoak jasotzen ditu bere lanetan. Hockneyk teknika gisa eta baliabide gisa erabiltzen du kamera. Tamaina handiko lanak egiteko, hainbat mihise sare-egitura bat osatuz margotzen ditu: kamera batez eta ordenagailu batez baliatzen da lauki batean baino ez lan egiten dagoenean, margotu nahi duen irudia osorik ikusteko.

Kamerak horrela erabiltzeaz gain, filmak egiteko ere baliatzen ditu; are 18 kamera, aldi berean, erabili ditu Yorkshireko paisaiak grabatzeko. Film horiek hainbat pantailek osatutako sareta batean emango dira esperientzia bisual harrigarria sortzeko. Azkenik, orain gutxi egindako lanak ere badaude, i-Pad bidez, ikatz-ziriz egindako marrazkiak eta bizirik egindako estudioak.

## ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



### FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Cristina García Rodero: Zeru-lur artean***  
Komisarioa: Rosa Martínez  
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa  
Data: 2012ko irailak 25–2013ko urtarrilak 13  
Aretoak: 301, 302, 303 eta 304

### ***Argazkigintza: ikusizko mundua, emozioak, hainbat gizarte eta politika hausnartzeko tresna***




Cristina García Rodero-ren (Puertollano, Ciudad Real, 1949) helduaroko lanen erakusketa handia da *Zeru-lur artean*: 150 bat lan egongo dira, azken hogei urteetan egindakoak. Horietan bidez aztertuko dira artistak ildo nagusi izandako interes estetiko, tematiko eta existentzialak.

Argazkigintzaz baliatu da García Rodero ikusizko mundua, emozioak, gizarteak eta politika hausnartzeko, eta horrexek bihurtu du ezagun nazioartean. Izan ere, argazkilaritza pinturaren tradiziozko adierazpide-moduen jarraipena da.

Argazkigintza postmodernoaren simulazio-ariketak eta parodiaz betetako eszenaratzeak alde batera utzi ditu García Roderok, eta, aitzitik, dokumentalismo klasikoaren eremukoak dira haren lanak: egia, zinezkotasuna eta oroitarazteko asmoa haren argazkien itxuraren eta konposizioaren azpian daude. Sortze-lan horiek gaurkotasanaren erreportajeetatik harago doaz: gai jakin batzuk etengabe lantzen jardun baitu hamabost urtez baino gehiagoz, eta sakontze-ariketa konplexu eta dinamiko horretan behin eta berriro itzuli baita alor bertsuetara. Giza jokabidean arreta handia jartzen badu ere, haren irudiak ez dira deskripzio hutsak; alegia, asmo antropologikoa duen erreportajeak baino gehiago dira.

Erakusketaren tituluak, *Cristina García Rodero: Zeru-lur artean*, bi gune horien arteko espazio fisikoari eta irudimenezkoari erreferentzia egiten dio; bertan adierazten dira bizidunon antsietatea, mina, poztasuna, ametsak eta zorigaitzak. Egunerokoa zein ospakizunak eta errituak jasotzen ditu artistak, munduko txoko guztietakoak. Bada, harentzat, balio bera dute; horregatik dago haren lana unibertsalismo klasikoaren tradizioaren barruan, edozer jotzen baitu gizatiartzat. Artistak berak esan du: “Gizakiaz jardun nahi dut: giza bizitzaren dualitatez eta kontraesanez, antzinako tradizioez eta gaur egungo errituez, naturalaz eta natura gaindikoaz, erlijioaz eta paganismoaz, minaz eta plazeraz, gizakiaz eta jainkoez, arimaz eta gorputzaz, lurraz eta uraz, bizitzaz eta heriotzaz, gerraz eta bakeaz”.

## ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



### FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Egon Schiele***  
Komisarioa: Klaus Albrecht Schröder  
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa  
Datak: 2013ko urriak 2–2013ko urtarrilak 6  
Aretoak: 305, 306 eta 307

### ***Egon Schiele-ren sormenezko mundu liluragarrian barrena***



Erakusketa honek Egon Schiele austriar espresionistaren unibertsoan murgilduko gaitu. Marrazkiak eta akuarelak ikusgai jarriko dira, guztiak Vienako Albertinarenak. Erakunde horrek grafikalanen bilduma zabalenetakoa eta garrantzitsuenetakoa dauka munduan.

Ehun bat lanek artistaren estiloaren bilakaera agertuko dute: hasierako lanak Vienako Akademian trebatzen zela egin zituen; gerora Gustav Klimt-en eta Vienako Modernismoaren eragina izan zuen; eta azken lanetan kolorea era apurtzailean erabili eta ezusteko bestelako gaietara —biluztasun erotiko gorrira, esaterako— jo zuen, naturalismoarekin apurtzeko.

Schielerena oso espresionismo berezia eta pertsonala da: azalera lauak apaingarri gisa erabili zituen, baita Vienako Sezesioaren estiloko lerro arinak ere. Gainera, emakume biluziaren irudi erotikoa askatu zuen artista austriarrak: karikaturatik zein argazki pornografikotik guztiz aldendu zen, ederraren eta itsusiaren antagonismoa desegin baitzuen eta emakume biluziaren irudia bestelako leku nagusi bat eman baitzion artean.

Ibilbide osoko gaiak ikusgai jarriko dira erakusketa: paisaiak, haurren irudiak, eta, batik bat, erretratuak eta autorretratuak. Hartara, sakonean aztertuko da Schiele-ren sormen mundua, alegia, 28 urte besterik ez zituela zendu zen XX. mendearen hasierako artearen irudi gailen batena.

## ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



### FITXA TEKNIKOA

- Titulua: *Claes Oldenburg. 1960ko hamarkada*  
Komisarioa: Achim Hochdörfer  
Egoitzak: MUMOK, Viena; Ludwig Museum, Kolonia; Guggenheim Bilbao Museoa; Museum of Modern Art, New York; eta Walker Art Center, Minneapolis  
Datak: 2012ko urriak 30–2013ko otsailak 17  
Aretoak: Bigarren solairukoak

#### *Umorez, ironiaz eta gatzez irudikatu eguneroko objektuak*

*Claes Oldenburg. 1960ko hamarkada* artearen historiaren irudi gailen Claes Oldenburg-en hasierako lanei, 1960ko hamarkadako lan berritzaile eta enblematikoei, inoiz eskainitako erakusketarik zabalena izango da. Oldenburg 1928an jaio zen Stockholmen, eta eragin handia izan du arteen garapenean 1950eko hamarkadaz geroztik.



Eguneroko objektuak modu zorrotzean eta ironikoan irudikatu zituen Oldenburg-ek, eta pop artean, performancean eta instalazio-artean funtsezko artista bihurtu zen. Era berean, gune publikoetan jartzeko artean eragin handia izan dute haren eskala handiko proiektuek: kontsumo-salgaien monumentu erraldoiek, Coosje van Bruggen-ekin batera munduko hainbat hiritarako sortutakoak.

Oldenburgek masa-produkzioko salgaiak bihurtzen ditu bere lanaren erdigune: objektua salgai gisa jorratzen du. Horien testuingurua eta itxura eraldatzen ditu hainbat tekniken bidez, eta metamorfosi horrek bizimodu kapitalistaren ezaugarri diren kulturaren, fantasien, obsesioen eta irriken ikur bihurtzen ditu.

Museoko bigarren solairuan egongo da erakusketa eta bertan egongo dira artistaren pop ikono ezagunak, besteak beste: hastapenetako instalazioak, esaterako, *Kalea* (1960); graffitietan inspiratutako bizimodu modernoaren adierazpenak; *Denda* (1961) bezalako lanak, “etxe moderno”ko objektuez, tamaina erraldoian, egindakoek — telefonoa, haizagailua eta bainu-ontzia, adibidez—; hainbat hiritarako sortutako salgaien monumentu erraldoiak; eta, azkenik, *Mouse Museum*, barrutik ibili daitekeen sagu itxurako museo geometriko txikia, zeinarentzako Oldenburg-ek 50 urtetan 381 objektu baino gehiago bildu dituen.

Era berean, inoiz ez edo gutxitan ikusgai jarritako lanak egongo dira: marrazkiak, argazkiak, filmak eta artistaren hainbat ohar, koaderno-orrietan idatzita; azken horiek Oldenburgen ikerketaren eta adimen-prozesu umoristikoaren ikuspegi bikaina eskainiko dute.

# ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



## FITXA TEKNIKOA

Titulua: *Guggenheim Bilbao Museoren aukeraketak III*  
Komisarioa: Álvaro Rodríguez Fominaya  
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa  
Datak: 2012ko azaroak 27–2013ko udazkena  
Aretoak: 103 eta 105

### *Guggenheim Bilbao Museoren funtsei soilik eskainitako zikloaren hirugarren erakusketa*

Guggenheim Bilbao Bildumaren funtsen inguruan antolatutako erakusketa-ziklo baten hirugarrena eta azkena da *Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak III*. Ziklo horrek helburu du Guggenheim Bilbao Bilduman sakontzea eta bertako artisten eta lanen (egun, 70 artisten 124 artelan) testuingurua ematea.

Lehenengo erakusketan, hogei bat lan jarri ziren ikusgai AEBko eta Europako artisten arteko hartu-emanak, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, aztertzeko —AEBko Mark Rothko, Cy Twombly eta Andy Warhol, eta Europako Yves Klein, Antonio Saura, Jorge Oteiza eta Eduardo Chillida artisten lanak izan ziren—. Bigarrean, 1970eko eta 1980ko hamarkadetako arte-etzabaidetan sakondu zen, Europako artisten belaunaldi batek piztu zituenak —Georg Baselitz, Christian Boltanski, Anselm Kiefer, Jannis Kounellis, Richard Long, Gerhard Richter eta Francesc Torres, besteak beste—.

Oraingo honetan Guggenheim Bilbao Bildumaren funtsezko alorretako bat izango da ardatza: pop artea. Ikusgai jarriko dira funtsezko artisten, horien ondareen ordezkarien eta historiako joera horrekin lotura biografiko zein kontzeptualak izandakoen lanak, hala nola, hauenak: Andy Warhol, James Rosenquist, Gilbert & George, Sigmar Polke, Robert Rauschenberg, Manolo Valdés eta Jean-Michel Basquiat.

Lan horiekin batera, lehenbiziko aldiz aurkeztuko da Guggenheim Bilbao Bildumari gehitutako azkenetako lan bat: Alex Katz-en *Irribarreak* (*Smiles*, 1993–94). Tamaina handiko 11 mihisek osatzen dute lan hori, artistaren ohiko estiloan egindakoak; hots, irudiek ez dute bolumenik.

Argibide gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa  
Komunikazio eta Marketin Saila  
Tel.: +34 944 35 90 08  
Faxa: +34 94 435 90 59  
[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)  
[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)